

Oraina beraiena bada ere, iragana eta geroa geureak direlako

Eskoziako lehen ministro Alex Salmond-ek Eskoziaren geroari emandako hitza ertsiz eta Hugh McDermid poetaren hitzak erabiliz hasi du urte berria:

*Guk Eskozian sinesten jarraitzen dugu,
Oraina euren bada ere, iragana eta geroa geureak direlako.*

Gogora ekarri dezagun 2011ko maiatzak Euskal Herrira ekarri zuen aldaketa politikoa. Sekular izandako gehiengoak lortu zituen Bilduk Gipuzkoako herri, hiri edota Batzar Nagusietan, eta horrek euskal politikaren birplanteamendu beharrezkoa ekarri zuen. Baina Euskal Herria ez zen eszenario politiko berria estreinatu zuen nazio bakarra. Eskozian ere, *Scottish National Party* abertzalearen bozketen zenbatekoak maila gorenera igo ziren. Aurreko legegintzaldian alderdi horrek Eskoziako gobernuburu izatea lortu zuen, baina gutxiengo gobernu batekin. Izan ere, Britainia Handiko lege elektoralak halako trikimailu bat du non oso zaila den gobernua alderdi bakarrak lortzea. Hala SNPk kanpainan behin eta berriz aldarrikatutako erreferenduma ezin izan zuten aurrera atera, eskoziar ganberak atzera bota zuelako proposamena.

Baina eta 2011ko maiatza *eraldatzailer* horretan, Euskal Herrian ez ezik, Eskozian ere independentziaren aldeko haizeak astindu zituen bozketara joandako jendearen gogoak, eta, orduan bai, SNPk majoria absolutua eskuratu zuen. Eta gehiengo hori programan zituen hiru ideia nagusiri esker lortu zuen:

1. 2020rako Eskoziaren elektrizitatearen %100 iturri berriztagarrietatik ekoiztea
2. Egin beharreko arau eta legeak sustatu Eskoziak independentziaren inguruko erreferenduma izan dezan.
3. Unibertsitateko matrikula tasak dohainik izatea eskoziar ikasleentzat.

Hiru puntuok argi erakusten dute zein gizarte klase aukeratu duten eskoziarrek: hezkuntzan oinarritua, energia ekoizlea, ingurumena errespetatzen duena, eta batez ere, independentea. Eskoziarrek badakite zer nahi duten; nolako Eskozia eraiki nahi duten; zelako baloretan oinarrituko diren. Urtetan zehar hala izan da, eta orain ere berdina egiten jarraitu nahi dute, inoren aginduak bete behar izan gabe.

Euskaldunok ere garbi geneukan zer nolako Euskal Herria eraiki nahi genuen, eta borondate hori inoiz baino nabarmenago agertu zen kaleetan, eta instituzioetan ere. Hasi gara bada beste era bateko politika egiten; gure ikuspegiarekin, gure helburuak argi izanik, gure puntu sendoak profitatuz eta ahulak indartuz. Agerikoa izan dadin gure mezua bai euskaldunen artean, baita Espainian edo Frantzian, eta nola ez, nazioartean ere; gure geroa geuk erabaki nahi dugula, badakigula egiten eta borondatea daukagula.

Whiskyaren eta Tartanezko gonon herrira bueltatuz, orain beraientzat garrantzizkoena dena geroa kudeatzeko eskumenak izatea da, eta horretarako presenteari aldaketak egin behar zaizkio. Lehenik eta behin Britainia Handiarengandiko askatasun ekonomikoa behar dute, bestela zaila dute euren garapenean inbertitzea.

Egun, Westminsterreko legebiltzarra ari da “Scotland Bill” delakoa aztertzen, zeinek eskumen ekonomiko batzuk luzatuko dizkion Edinburghekoari. Eskumen ekonomiko hori zifratan jarritz gero, 12 mila milioi libera lirateke, hau da, eskoziarrek beraien zergetatik eratorria denaren herena kontrolatuko lukete. SNP ez da inoiz Scotland Bill-aren inguruko eztabaidan tematu, Westminsterren kontrolpeko “poltsikoko xoxekin” ezin baita benetan aurrera egin haien ustez.

Beste era batean esanda; Eskoziak argi eta garbi hitz egin du INDEPENDENTZIAri buruz. Eta independentzia letra larriz idazten dut, herri horretan direnaz harro hitz egiten dutelako. Beldurrik, lotsarik eta erreparorik gabe. INDEPENDENTZIA. Noski, berau lortzeko urratsak eman behar dituzte, ezin egun batetik bestera lortu. Baina bidetik pausu bat alden du gabe.

Eta bide horretan badirudi bidaide bat aurkitu dutela; nor, eta Britainia Handiko lehen Ministro David Cameron bera. Cameron jaunak dio berez Britainia Handiko konstituzioak ez diola Eskoziako legebiltzarrari erreferendumik egiteko eskumenik onartzen, baina (eta baina hau da kontu guztiaren muina) Eskoziarren gehiengoak independentziaren aldeko autua egiten badu, Westminsterrek onartu baino ezin duela egin. Hau da, Eskoziak nazio bezala onartzeaz gain, honek berez duen autodeterminazio eskubidea onartzen dio. Ez da bada konstituzio kontu bat, borondate eta enpatia politikoarena baizik. Noski Downing Streeteko burua ez da on puska bat, eta bere baldintzak mahai gainean jarri ditu: galdeketa hurrengo 18 hilabeteen buruan betetzea eta bertan galdera bakarra: independentzia bai, ala independentzia ez.

Orain Salmondrek ihardetsi du 2014ko udazkenean jarriko dutela data, eta denbora behar dela zer nolako galdeketa egingo duten ikusteko, txor txor... Eztabaida sutsua dugu aurretik, baina eztabaida da, eta independentziaren ingurukoa. Horri egiten diot txalo nik. Eta penaz begiratzen dut Madrilera edo Parisera, halako demokraziaren zentzua galduta duten bi estatuetakoa hiriburuak. Eta nire buruari galdetzen diot; Euskaldunok noiz galduko dugu independentziaren inguruan lotsarik gabe hitz egiteko beldurra? Noiz planteatuko ditugu gauzak hain argi? Izan ere, lagun eskoziarrek baino askoz botere politiko handiagoa dugu bideari ekiteko, hasteko autonomia fiskal osoa... falta zaiguna da Euskal Herriarekiko sinesmen apur bat, eta noski, benetan gai honi gogoz heltzeko borondatea. Nik behintzat, badaukat.

Badakit badagoela Euskal Herri independentearen ideia gustatuko ez zaionik, baina Bilduren filosofian sinisten duenik; euskal indarren batasuna, erabakitze eskubidea, berdintasuna eta aurrerakoitasuna. Eta hemen askok ulertu zutena da, baita Eskozian eta Britainia Handian ere, edozein herri badeu bere geroaren jabe izateko eskubidea. Badirudi, ordea, Frantzia eta Espainia oraindik ez direla horretaz konturatu. Gogorazi beharko zaie bada, oraina beraiena bada ere, iragana eta geroa geureak direla.

Lohitzune Txarola Gurrutxaga
Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria